

Euskara hizkuntza-tipologiaren eremuan

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Uxo Iñurrieta

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai hau Hizkuntza eta Literatura espezialitateko bigarren modulu espezifikoa kokatzen da, eta hizkuntzalaritza-kontuak ditu ardatz nagusi, hizkuntzen ikas-irakaskuntza ikasleen ezaugarrietara nola egokitu ikasteko. Zehazki, hizkuntza-tipologiaren oinarrizko kontzeptu batzuk hartuko ditugu oinarri gisa, eta hortik abiatuko gara hizkuntzen arteko aldeez eta antzekotasunez aritzeko. Tipologiak hizkuntzen ikas-irakaskuntzan izan lezakeen eraginaz ere jardungo dugu, batez ere euskara erdigunean jarrita.

3. Konpetentziak

- Hizkuntza-aniztasunaren eta hizkuntza-gaitasunaren inguruan hausnartzeko eta gure inguruko hizkuntzak koordinatu horietan kokatzeko gaitasuna
- Tipologikoki desberdinak diren hizkuntzen arteko aldeak eta antzekotasunak identifikatzeko gaitasuna
- Eskolaren testuinguruko hizkuntzen ezaugarri tipologikoak ezagutzeko gaitasuna, ikasleen hizkuntza-gaitasuna lantzeko errefortzu-jardueretan kontuan hartu ahal izateko
- Hizkuntzaren arauen ezagutza eta haiek testuinguru soziolinguistikoaren baldintza pragmatikoaren arabera moldatzeko gaitasuna
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko eta prozesatzeko gaitasuna, haietatik informazio esanguratsua ateratzeko eta informazio hori kritikoki aztertzeko, interpretatzeko eta ebaluatzeko

4. Ikas-emaizak

- Hizkuntzen arteko alderaketak egiteko oinarri linguistikoak ezagutzea, eta, curriculumeko hizkuntzak kontuan hartuta, jakintza hori ikasgelan aplikatzea.
- Curriculumeko hizkuntzen gramatikari buruzko proposamen didaktiko bat sortzea, azaltzea eta defendatzea, ikasgelako hizkuntzen arteko antzekotasunak eta aldeak aintzat hartuta.

- Ikasgelan gramatika irakasterakoan gramatika-azterketetako askotariko prozedurak erabiltzea.

5. Edukiak

1. Hizkuntza-tipologia, hizkuntzaren unibertsalak eta hizkuntzen sailkapenak. Tipologiaren eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren arteko lotura.
2. Hizkuntzen tripetan barrena: euskararen ezaugarri tipologikoak (hitz-hurrenkera, kasuak eta postposizioak, aditz-komunztadura...)
3. Hizkuntza-transferentzia eta txosten tipologikoak

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

Ikasgaien berariaz landuko dugun bibliografia eta baliabideak

Cunningham, U. (2015). Language teachers' need for linguistics. *Te Reo* 58: 77-94. or.

Dryer, M. S. eta Haspelmath, M. (2013). *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemendik eskuratua 2021eko urrian: <http://wals.info>.

Eckman, F. (2012). Linguistic Typology and Second Language Acquisition. In Jae Jung Song (ed.), *The Oxford Handbook of Linguistic Typology*. Oxford Handbooks Online.

Euskara Institutua, EHU (2021eko urria). *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Hemendik eskuratua: www.ehu.eus/seg

Johnson, K. (2007). Basque inquisition: how do you say shepherd in Euskera? *The Wall Street Journal*.

Langfocus (2015). *What's the easiest language to learn?* Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=QaEZ5_hfEc4.

Moravcsik, E. A. (2012). *Introducing language typology*. Cambridge University Press.

Saville-Troike, M. eta Barto, K. (2016). *Introducing Second Language Acquisition* (3. ed.). Cambridge: Cambridge University Press.

Universität Konstanz. *Rara & Universals Archive*. Hemendik eskuratua 2021eko urrian: <https://typo.uni-konstanz.de/rara/>.

Wikipedia (2021eko urria). Phonemic orthography. In *Wikipedia, The Free Encyclopedia*. Hemendik eskuratua: https://en.wikipedia.org/w/index.php?title=Phonemic_orthography&oldid=1051125923.

Bibliografia osagarria

Bosque, I. & Demonte, V. (1999). *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madril: Espasa.

Comrie, B. (1989). *Language universals and linguistic typology: syntax and morphology*. 2nd edition (1st edition: 1981). Chicago: University of Chicago Press.

Croft, W. (2002). *Typology and universals*. 2nd edition (1st edition: 1990). Cambridge, UK: Cambridge University Press.

Dixon, R.M.W. (1994). Ergativity. *Cambridge Studies in Linguistics*, 69. Cambridge: Cambridge University Press.

Fernandez, B. & Ortiz de Urbina, J. (2007). *Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan*. UEU.

Eckman, F.r. (2010). *The Oxford Handbook of Linguistic Typology*. Oxford University Press.

Hawkins, J.A. 1990. A parsing theory of Word Order Universals. *Linguistic Inquiry* 21, 223-261. or.

Ladefoged, P. & Maddieson, I. (1996). *The sounds of the World's Languages*. London: Blacwell

Manning, C.D. (1996). Ergativity. *Argument structure and grammatical relations*. Standford: CSLI.

Mitxelena, K. (1981). Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. *Euskal Lingüística eta Literatura: Bide berriak*. Bilbao: Universidad de Deusto. 57-81.

Moreno Cabrera, J.C. (2004). *Introducción a la lingüística. Enfoque tipológico y universalista* (2ª edición). Madrid: Síntesis.

Pinker, Steven. 1994. *The Language Instinct*. London: Penguin.

Whaley, L. J. 1997. *Introduction to typology. The Unity and Diversity of Language*. Thousand Oaks, CA: Sage Publications.


Beste webgune interesgarri batzuk

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra:
<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/home>

Ethnologue: <http://www.ethnologue.com/>

Foundation for Endangered Languages: <http://www.ogmios.org/>

<https://www.goi-institutua.eus>



Endangered Languages: <https://www.endangeredlanguages.com/>